



Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica

Modu elektronikoan soilik egingo diren kontratazio- prozedurak badatoz



www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

12

Modu elektronikoan soilik egingo diren kontratazio-prozedurak badatoz

Orain arte, Administrazio Publikoak ondasunak eta zerbitzuak erosteko, honako kontratazio-metodoak erabiltzen zituen:

- Irekia
- Mugatua
- Negoziatua publizitatearekin
- Negoziatua publizitaterik gabe

Administrazio kontratuei buruzko 18/2004/EB erkidegoko zuzentarauan eta Herri Administrazioen kontratuei buruzko Lege proiektuan modu elektronikoan soilik egingo diren kontratazioen tipologia berriak sortuko direla adierazten da:

- 1. Enkante elektronikoa
- 2. Kontrataziorako sistema dinamikoak

Europako Batasunak 2010erako helburuen artean ezarri du Europako administrazio publiko osoko kontratazioen %50 prozedura elektronikoeekin egitea; hori horrela izanik, Eusko Jaurlaritzaren helburua da helmuga horretara ahalik eta lasterren iristea.

Erkidegoko zuzentaru hori betetzearren, Eusko Jaurlaritza kontratazio elektronikoaren proiektuari ematen ari zaion jarrera proaktiboaren ondorioz, azaroan funtzionalitate berrien garapena jarri da abian 2007an modu elektronikoan soilik egiteko kontratazio tipologiekin hasteko. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak azpimarratu egin nahi dizu zure enpresa prestatzea interesatzen zaiola, modu elektronikoan soilik egiteko prozedura berrien ondoriozko aldaketetarako.





Eredu erraz, erabilgarri
eta segurua




- Egungo prozedurak
- Kontratazioarako prozedura berriak, soilik elektronikoak

Eusko Jaurlaritzak seguru dago kontratazio publiko elektronikoa berez dituen onurak alde batera utzita ere, kontratazio publiko elektronikoa eredu ezartzea euskal enpresentzat "esperimentaziorako eta ohitzeko aukera" dela. Izan ere, laster gaitetiko administrazioek ere (Diputazioak, Udalak) kontratazio elektronikoa erabili beharko baitute.

Hau da, Eusko Jaurlaritzaren iritziz kontratazio publiko elektronikoa besteek baino lehen ezartzea lehiarako abantaila izango da enpresentzat.

Ezagutu ditzagun gehixeago modu elektronikoan soilik egiteko kontratazio mota berriak:



1

Enkante Elektronikoa

Enkante elektronikoa bitarteko elektronikoekin egindako eskaintzak aukeratzeko prozedura da, horri esker enpresek beraien eskaintzako beheranzko salneurriak gainbegira ditzakete eta beste parametro kuantifikagarri batzuen balioa aldatu.

Hauek dira enkante elektronikoaren ezaugarrietako batzuk:

- Enkante prozesuan nahiz salneurria nahiz eskaintzan kuantifika daitezkeen beste parametro batzuen balioa sar daiteke, baita biak batera ere.
- Enkante elektronikoak lehenengo fase bat dauka, eskaintzen ebaluazio kualitatibo osoa egiteko. Horren bidez enkanteko berariazko faseak automatikoki gara daitezke ebaluazio fasea gainditu duten hornitzaileen oinarria hartuta.

Enkantea berariaz agertuko da Agintaritzaren Aldizkarian eta gutxienez funtsezko informazio hau ekarriko du:

- Enkantearen oinarriko parametroak: salneurria edota enpresa bateko eskaintzaren beste parametro kuantifikagarri batzuk.
- Enkantean parametro horien gutxieneko bariazio batzuk onartuko dira, eta gutxieneko hori izango da enpresa bereko bi eskaintza jarraituen artean egon ahal izango den gutxieneko aldea.
- Enkantean parte hartuko duten enpresei jakinaraziko zaien informazioaren jatorria eta informazio hori emango zaien une zehatza.
- Enkantea garatzeko modua.

Eskaintzak automatikoki sailkatuko dira. Horretarako erabiliko den formulak finkatutako irizpide guztiak haztatuko ditu abantaila ekonomikorik handieneko eskaintza zein den zehazteko.

Enkanteko fase bakoitzean eta etengabe eta bat-batean adieraziko zaie eskaintzaileei une bakoitzean duten sailkapena jakin ahal izateko informazioa.

Enkantea ixteko irizpide hauetako bat edo batzuk jarriko dira erreferentziaz:

- Amaitzeko data eta ordu zehatza ezarriko dira.
- Eskaintza berririk ez badago, gutxieneko hobekuntzen formulazioarekin ezarritako baldintzak betetzen dituen salneurri edo balio berriekin.
- Enkantean parte hartzeko gonbidapenean ezarritako fase kopurua amaitu bada.

Azkenik, azpimarratu beharra dago enkante elektronikoaren erabilpena oso zabala izan daitekeela eta prozedura irekian, mugatuan, negoziatuetan eta erosteko sistema dinamikoetan erabili daiteke.



Eredu erraz, erabilgarri
eta segurua

2 Kontrataziorako Sistema Dinamikoak

Kontrataziorako sistema dinamikoak modu elektronikoa soilik egin daitezkeen kontratazio prozedurak dira eta ohiko erabilera duten hornikuntzak eta zerbitzuak erosteko erabiltzen dira. Denbora mugatuko prozedura da, gehienez ere 4 urterako, eta epe horretan irekita egoten da interesatutako enpresa guztientzat, hautatze-irizpideak gaindituta badituzte eta kontsultako irizpideen arabera eskaintza bat aurkeztu baldin bazuten.

Kontrataziorako sistema dinamikoaren kudeaketa prozesua elementu hauek argitaratuta hasten da:

- Iragarki bat zehazten duena kontrataziorako sistema dinamikoko espedientea dela; esleipenerako irizpideak ere ezarriko dira iragarki horretan.
- Kontratatu beharreko elementuen izaera zehazteko berezitasunak, kontratazioa garatzeko sisteman eta bitarteko informatikoetan sartzeko behar den informazio guztia.

Erosketa sistema dinamikoaren kudeaketa prozesu osoa irekita egoten da hasierako eskaintza egin duten enpresa guztientzat, eskaintza hori zehaztapenen arabera egina izan bada. Sistema dinamikoa indarrean den bitartean egindako eskaintza hobetzeko aukera izaten dute gainera.

Sistemaren garapena eta kontratuen esleipenak bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen bidez bakarrik egingo dira, eta honako baldintzak bete beharko dira:

- Sistema indarrean den bitartean, interesa duen enpresari orok aurkeztu ahal izango du bere eskaintza, sisteman sartu ahal izateko.
- Sistema dinamikoa esleitu nahi den berariazko kontratu orok berariazko lizitazioa igaro beharko du.
- Eskaintza indikatiboak edozein unetan hobetu daitezke, zehaztapenen arabera egiten badira.

Amaitzeko, beharrezkoa da azpimarratzea Administrazioak enkante elektronikoa erabili ahal izango duela Kontratazio sistema dinamikoa.



Presta zaitez

Kontratazio publiko elektronikoa berenganatzea ez da enpresek euren kabuz, bakarrik, egin beharreko bidea. Duela 4 urte geroztik Eusko Jaurlaritzak sentsibilizazio, formazio eta euskarri tekniko elementuen garapena lantzen ari da.

Hala da, bai, kontratazio publiko elektronikoaren sistema abian jartzeko, trebakuntza plan bat daukagu erabiltzaile hauei zuzenduriko ekintzekin:

- Enkantean parte hartuko duten enpresetako pertsoneri, horien zeregina eskaintza prestatzea eta sinatzea bada.
- Enkantean parte hartuko duten enpresetako euskarrien teknikari informatikoei.

Sartzeko bi bide daude:

- Oinarrizko prestakuntza:
 - Eusko Jaurlaritzako edo erakunde partehartzaileretako geletan, berriazko prestakuntza kanpainen bidez.
 - Datak eta tokia berriazko promozio kanpainetan eta web orrian adieraziko dira.
- Prestakuntzako materiala Internet bidez lor daiteke helbide hauetan:
 - www.contratacion.info
 - www.euskadi.net/kontratazioa

Zure esanetara, zuri laguntzeko

Eusko Jaurlaritzak Arreta Zentro bat sortu du kontratazio publiko elektronikoko sistemako erabiltzaileentzat. Zentro horrek euskarriak eta arreta eskaintzen dizkie euskal Administrazioarekin enkante elektronikoa egin behar duten guztiei.

Kontratazio publiko elektronikoko sistemako erabiltzaileen arreta zentroak helburu hauek ditu:

- Enpresa bakoitzean kontratazio publiko elektronikoa egin behar duten pertsonekin zuzeneko harremana izateko gune nagusi bat eskaini.
- Euskarriak eskaini aplikazioak erabiltzeko eta balizko gorabeheretan lagundu.

Zuzenean, Eusko Jaurlaritzako herritarren arretarako zerbitzua, da telefono eta posta elektronikoko bidezko kontsultak sartzeko bidea.

- **012** telefono zenbakia, Euskal Autonomia Erkidegotik egindako deientzat.
- **945 018 000** telefono zenbakia Estatuko beste tokietatik egindakoentzat.
- Interneteko helbidea: www.euskadi.net
- Posta elektronikoko helbidea: laguntzakpe@ej-gv.es